bidegileak



Migel Olasagarre (1886-1986)

Aita Damaso Intzakoa

Egilea:

ROSA MIREN PAGOLA

Barnekoia eta maitekorra



Migel Olasagarre Zubillaga, *Aita Damaso Intzakoa* (1886-1986)

Intza eta Madotz

Iruñeko merindade zabalean bada, Betelu ondoan, Gipuzkoatik aski hurbil, Araitz udalerriko kontzejukoa den herritxo polit bat Intza deitzen dena. Baserri eta etxeak sakabanatuak ditu Aralar mendizerrako Malloak mendien oinean. Goi batean eta inguruetara begira, Santiago Apostoluaren izenpean, herriko eliza ageri da. Herria txikia da, laurogei bat biztanle baino ez baititu, eta ez du denbora askorik hartzen hango etxe eta etxaldeak goiti-beheiti eta ezker-eskuin ikusi eta ezagutzeak. Baina, esan bezala, polita eta atsegina eta baketsua ere bada, eta izadiaz gozatu edo jende euskaldun petoez solas egin nahi duenak ez du toki hautagorik aurkituko.

Iruñeko merindadetik irten gabe eta Intza bera baino txikiagoa den Madotz herria Larraun udalerrian dago, Aralar mendizerraren magalean, Mikel Goiaingeruak Santutegitik hedatzen duen itzal babeslearen azpian kokatua. Herria bildua eta alaia da; hogeita hamar biztanlera ez da iristen, baina han iraun duten trikuharriek aldarrikatzen dutenez, aspalditik izan dira inguru haiek bizileku.

Intza herriak etxeak sakabanatuak ditu Malloak mendien azpian

Aita Damasoren *Kalparregi* sortetxea

Intzako Santiago Apostoluaren elizan bataiatua izan zen

Baserri giroan haurtzaroa

Miguel Olasagarre Zubillaga Intzako herrian jaio zen, 1886ko urriaren 19an, Euskal Herriko mendi eta basoak sasoirik hoberenean jartzen ari ziren urteko garaian: giroa atsegin, hegoa epel, zuhaitzak kolore oroz jantziak eta zeru gardenean pagauso eta birigarroak pasan. Haurra, jatorriz, gipuzkoarra ere bazen. Aita, Juan Felipe, eta honen aita, Martin Antonio, Intzakoak zituen. Aitaren aldetiko amona, Martina Amondarain, gipuzkoarra zen, Tolosatik hurbil den Baliarrain herri txikikoa, eta gipuzkoarrak ziren amaren aldeko aiton-amonak ere, Blas Ignazio Zubillaga eta Juana Bautista Goldarasena, Bedaiokoa eta Amezketakoak jarraiberean. Ama, Juana Frantziska, Nafarroakoa zen, Astitzekoa.

Jaio eta hurrengo egunean, Santiago parrokian izan zen bataiatua eta Miguel izena ezarri zioten. Amaren aldetiko osaba izan zuen aita ponteko eta honena zen ezarri zioten izena; ama pontekoa, berriz, Catalina izan zen, aitaren aldetiko izeba. Aipa dezagun, bide batez, Migelen anai-arreben artean beste bat ere kaputxino egin zela, Anaia legoa, Casiano de Madoz izena hartu zuena komentuan.

*Kalparregi*ren harlanduak eta armarria

Jaiotza-liburuko Migel Olasagarreren erregistroa

Kalparregi saihetsetik hartua

Intza herrira joanez gero, han ikus daiteke, herritik apurtxo bat lekutua, *Kalparregi* deitzen den Migel Olasagarreren sortetxea. Gaur egun han ez da inor bizi, baina etxea zutik dago, urteek eta artarik ezak hagitz hondatu badute ere; halere, garai bateko itxura ederraren aztarnak ikus daitezke oraino leiho eta atearen alboetako harri landuetan eta ate gaineko leihoak ageri duen armarrian.

Haurtzaroko lehen bi urteak baizik ez zituen egin Intzan. Gurasoak *Kalparregi* baserrian maizterrak ziren, eta ugazabaren anaia bat Ameriketatik bueltatzeko zela-eta, etxea utzarazi zieten eta, horren ondorioz, herritik ere lekutu behar izan zuten. Madotzera aldatu ziren, harako bidea oinez egin zutelarik. Intzatik Madotzera, zuzen hartuta, 13 bat km. dira: bidea ez da berez luzeegia, baina ezta laburra ere familia batekin eta etxeko puska guziekin egiteko. Herri honetan igaro zituen Migelek urterik eragingarrienak: jolasak eta esperientziak, denak baserri eta euskal girorik jatorrenean. Oinarrizko ikasketak ere han egin zituen. Etenaldi latz bat ere izan zuen hasierako ikasketa horietan, hamabi urteko mutil kozkorra zelarik begietan izan zuen min batez, ezin baitzuen hiruzpalau lerrotik gora segidan irakurri, berak aitortzen zuen bezala. Herriko maisuak, ezin izango zuela ikasketekin jarraitu eta aziendak zaintzera bideratu beharko zuela mutikoa iradoki zion aitari.

Madotzen igaro zituen haurtzaroko urterik eragingarrienak

Ikasketak bideratuz

Mutiko argia izaki, ordea, eta herriko apaiza ohartu egin zen horretaz eta bai haren barne onaz ere Seminariora joan beharko zukeela aipatu zionean. Zaila ikusten zuen aukera hori Migel gaztetxoak, «Nola egingo naiz apaiz, ahuntzaia naiz eta» erantzun baitzion apaizari. Agian zaila izanen zen, bai, baina ez ezina, eta hamalau urterekin, justu XX. mendearen hasieran, Iruñeko Elizbarrutiko Seminarioan ikasketak hasi zituen. Humanitateetako ikasle zelarik, bigarren ikasturtearen amaiera aldera-edo, Iruñeko Kaputxinoen elizan sartzea egokitu zitzaion eta hango isiltasun eta erdi-ilunean zegoelarik, argiak piztu eta erlijiosoak bere otoitzekin hasi omen ziren, eta orduantxe sumatu zuen Migelek Kaputxino izateko zirrara bizia. Horrela, 1902an Aita Kaputxinoetan sartu zen. Zangotzako nobiziotegian 1902ko abuztuaren 31n hartu zuen abitua eta nobizio-urtea egin zuen, eta han bertan, hurrengo urtean, erlijio-bizitzako zin-hitzak agindu zituen eta,

Iruñeko Katedraleko Frantzisko Xabier Deunaren kaperan apaiz ordenatu zen

Iruñeko Seminarioan hasi zituen eliz ikasketak

Guraso eta anai-arrebekin lehenengo meza egunean. Kasiano anaia falta da

Kaputxinoen artean ohi zen bezala, izena ere aldatu zuen Fray Dámaso de Inza hartuz. Humanitateetako hirugarren ikasturtea Kaputxinoek Tuteran zuten etxean bukatu zuen. Jarraian, beste hiru urtez, Filosofiako ikasketak ere han egin zituen. Apaizgai-formazioa burutzeko Teologiako lau ikasturteak, berriz, Iruñean 1907-1911 bitartean. Iruñeko Katedraleko San Frantzisko Xabierren kaperan, 1910eko abenduaren 17an, apaiz ordenatu zen, eta egun handi eta eder hartan han izan ziren berekin ama eta aita eta anaia-arrebak.

Ikasketak bukatu ondoren, Iruñean bertan gelditu zen, Errotazaharreko komunitatean. Komentu honetan hogeita lau urtez bizitu zen, eta hortxe izan zituen euskal kulturarako urterik oparoenak. Garai hartan lagun handiak izan zituen erlijioko anaien artean, noski, baina bereziki aipatzekoa Aita Buenaventura Oieregi da, euskaltzalea hau ere eta Migel Tuterara joan zenetik ikaskide izan zuena meza eman arte. Gerora, biek elkarrekin kidetza emankorrean lan eginez, euskal kulturari fruitu ezin hobeak eskaini zizkioten.

Aita Damaso gizona

Izatez, neurriko gizasemea zen: ez handi, ez txiki; ez zabal, ez meharregi. Baina begiak, batetik, eta bizarrak, bestetik, nortasun aparta ezartzen zioten haren aurpegiari. Bizarra beti luze ibiltzen zuen —«Venerabilis barba Capuccinorum» A. Donostiaren abesti ezagunak dioen bezala— eta, esaten zenez, ez zuen sekula nahi izan mozterik. Begiak, berriz, bizi-biziak zituen, dirdiratsuak, begirada

Bizarra beti luze erabiltzen zuen

Erlijioko anaiekin maitekorra zen eta denekin pertsonarik begiratuena

ernez agertzen zuelarik zein arreta handia jartzen zuen zernahi esaten zitzaionean. Azken urteetan, bista hagitz galdua zuenean ere, begiek ez zuten bizitasun berezi hura erabat galdu. *Boletín Oficial de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón* 41 (1986) aldizkarian eskaintzen den haren biografian esaten denez, osasuna ez zuen behin ere ona izan, ez baitzituen birikak aski sendoak. Hala ere, ez zen botika zalea: nahiago zuen belarrekin-eta bere burua berak zaindu, konfiantza handia baitzuen haiengan. Konfiantza ez ezik, jakinduria ere bai: haurtzaroan familian ikusi eta ikasitako belarren ezagutza eta usantza aunitz sakondu zuen Txilen egon zenean, sendabelarretan aditua bihurtzeraino. Ahotsa ederra zuen, ez bereziki indartsua, baina entzuteko atsegina eta sermolaritzarako eragingarria. Izan ere, misiolari ospetsua izan zen, Euskal Herrian ezaguna.

Izatez, barnekoia zen eta bakartasuna eta bere baitan bildua bizitzea maite zituen, gauzetan burua gehiegi barreiatzetik ihes eginez. Baina lagunen lagun ona eta erlijioko anaiekin maitekorra eta denekin pertsonarik begiratuena zen: «sobera» diote laudorio bezala, eta ikustaldi bat aski zen zein gizabidezkoa eta pertsona adeitsua zen ohartzeko. Azken urteetan, erizainekin ere gizonik eskerronekoena izan omen zen.

Ez dirudi ekintza berrietarako oldartsuegia zenik, Aita Oieregik eta nagusiek lehen bultzada eman behar izaten baitzioten, baina, behin abiaturik, ez zion nolanahi etsiko hasitakoari. Dinamikoa, langile porrokatua eta kementsua lanak burutzen. Emaitzetan ez zuen kontutan mundu honetako distira, gizarteari eta herri xeheari laguntzea baizik. Eguneroko otoitzak goizean goizik hasita egiten zituen, eta elizkizunen liturgiari garrantzi handia ematen zion. Nagusien agindetara zintzoa eta leiala eta, denek diotenez, gizakume ona eta prestua zen, edozeini laguntzeko beti gertu izaten zena.

Bere sinadura

Euskararen aldeko jarrera

Aldatz eta Madotz herri euskaldunak ziren eta gure Aita Damaso ere haurtzaroan guztiz euskalduna zela dudarik ez dago. Hala ere, ikasketa urteetan euskara ahaztera iritsi zen, hain erabat ezen, Tuteran zegoelarik, 18-19 urte zituenean ama bisitatzera joan omen zitzaion eta ama-semeak ezin izan zuten elkar ulertu euskaraz, eta erdaraz ere ez, amak ez baitzekien erdararik. Ulertzekoa denez, negarrari ekin omen zion amak. Hain sartu zitzaion bihotz zolan gertakizun mingarri hura Frai Damasori, ezen, euskalduntasunaren kontzientzia ernatuz, euskara berreskuratzeko erabakirik sendoena hartu zuen eta, aurrerantzean, euskararen aldeko jarrera ezin baikorragoa izan zuen. Gertakizun penagarri horrek betirako markatu zuen Aita Damaso, eta ehun urte betetzeko egunetara zegoenean ere gogoratu eta kontatu egiten zuen, ez oroitzapen huts gisa, bere bizitzan eraginik sakonenetarikoa izan zuen gertakari bezala baizik.

Ziurrenik, ez zitzaion amarekin hitz egiteko bestean berriro euskaraz jabetzea hainbeste kostako. Izan ere, bazituen lagun euskaldunak eta libururen batzuk ere ez zitzaizkion faltako. Baina pentsatu behar da askoz ere

Iruñetik kanpo gelditzen zen Errotazahar komentua, horregatik «Extramurosekoa» deitua, 1606an sortu zen

lan gehiago ere egingo zuela ikasletzako urte horietan euskara hobeki ezagutzen eta menderatzen, karrera amaitu bezain pronto Aita Buenaventura Oieregikoak —honek inork baino hobeki zekien haren gaitasunaz, lagun minak baitziren— harengan pentsatzen baitu euskal aldizkari berri bat sortzeko, eta, ezarri ere, Damasori ezarri zioten egiteko hori 1912an. Hori ezin izango zioten enkargatu baldin ez balitz euskaraz, nahiz ahoz nahiz idatziz, aski ongi moldatu. Edonola ere, behin Iruñean finkatu eta apaiz-lanetan hasi ondoren, herriko jendearekin harremanean sartu zen eta hori hagitz lagungarri gertatu zitzaion. Iruñean hainbeste herritatik joaniko jende euskalduna bizi zen, batetik, eta kontutan izatekoa da XX. mendearen hasieran Nafarroan euskararen hedadura geografikoa bera ere zabalagoa zela gerora ezagutzen duguna baino. Horri esker, Aita Damasok berriro herriaren euskara mintzatuan murgildu ahal izan zuen, tokian tokiko hizkera ezagutu bidenabar, euskalki eta aldakien berezitasun eta ezaugarriak jasotzeko eta haien azterketarako aukera ezin hobea izan zuelarik. Asko lagundu zion euskara bera aztertzeko ez ezik, herriarentzat euskal aldizkariak sortzeko eta, zer esanik ez, sermoiak egiteko eta eliz zerbitzu eta harremanak euskaldunei euskaraz eskaini ahal izateko.

Eliz gizona zenez, eliza eta erlijiozko lanetan hasi zen Aita Intzaren euskal jarduera publikoa. Helburua Jainkozkoa izanik ere, bide batez euskarari onura ezin hobea zekarkion. Miresgarria da Nafarroa euskaldunean egin zuen lana, batez ere urteetan zuzendu zituen Hirugarren Ordenako Anaidiekin eta horien bitartez. Luzaro izan da aipatua bere izena Beruete, Etxaleku, Eratsun, Aurizberri, Mezkiritz, Zuriain eta hainbeste herritan, eta Garralda, Lekunberri eta Sakanako herrietako jende zaharrenak ongi oroitzen ziren hark emaniko misioez.



A. Damasori eskainitako partitura

ZERUKO ARGIA

Illaroko Aldizkingi Eder-gorriduna

Aita Kaputzinoek Sozendua

1 Urtea ..1919.. 1 Zenbakia

ILBELTZA

EUSKALDUN

GUZTIOI AGUR

*Zeruko Argia*ren lehenengo zenbakia

Euskal aldizkarien sortzaile eta suspertzaile

Hirugarren Ordenakoekin lan handia egiten zuten Aita Kaputxinoek, eta euskal jendeekin ari zirenek biziki sentitzen zuten anaidikoekin harreman estuagoen beharra. Kataluniako kaputxinoek katalanez argitaratutako aldizkaria eskutara etorri zitzaionean otu zitzaion Aita Oieregiri gauza bera euskaraz ere egitea on zitekeela. A. Damasok ezpainak zimurtu omen zituen, erronkaren ausartegiaz edo bere ahalean konfiantza faltaz-edo, lagunak gogo beroz ideia azaldu eta eurek egin beharko luketela agertu zionean. Haatik, A. Oieregik ongiegi ezagutzen zuen Intza haren ezezko ahul bategatik amore emateko, eta Probintziala zen Ildefonso Ziaurrizkoarengana jo zuen Hirugarrendarrentzat horrelako argitalpen bat euskaraz zein beharrezko zen agertuz. Nagusiak, besterik gabe,

Aita Damaso izendatu zuen argitalpen berriaren zuzendari, eta horrela atera zen, 1913an, *Irugarrengo Prantziskotarra*, 1936rarte hilabetero agertuko zen zortzi orrialdeko aldizkaritxoa. Aurretik ongi landutako lurra zenez, gustu handiz irakurtzen zen euskal etxeetan eta ongi zabaldu zen Euskal Herrian, batez ere Nafarroako herrietan.

Handik urte batzuetara, gaztelaniaz zuten *Mensajero Seráfico* aldizkariaren antzekoa eta hobeagoa ere atera behar zutela euskaraz pentsatu zuen berriro Aita Oieregik, baina «Jainkoaren izenean zoaz hemendik, naiko dugu lengoarekin» erantzuna jaso zuen. Hala ere, Aita Damasori eman zitzaion asmoa aurrera eramateko agindua, eta bera izan zen *Zeruko Argia*ren sortzailea eta bultzatzailea. Lehenengo zenbakia 1919. urtean atera zen eta etenik gabe jarraitu zuen ateratzen 1936rarte. Askotariko gaiak erabiltzen zituen: sineste eta moral irakatsiak, gertakizunak eta kontu adierazgarriak, misioetako gaiak, olerki eta musika erlijiosoak…, eta haurrentzat ere bazuen tartetxoa. Arrakasta handia izan zuen Euskal Herrian, sei mila bazkide lortu baitzituen, kolaboratzaileak ere lurralde guzietarik zituelarik.

Irugarrengo
Prantzisko'tarra

¡Agurr euskaldun eta Irugarrengoak!

Irugarrengo Prantziskotarra aldizkariaren lehenengo zenbakia



Aita Lorenzo Intzakoa, Aita Damasoren lehengusua. Marrazki politak egiten zituen *Zeruko Argia*rako

Euskaltzain oso

Ezaguna denez, 1918aren irailean, Eusko Ikaskuntzen Lehen Kongresuan sortu zen Euskaltzaindia, Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkijo jakintsuak izan zirelarik aurreneko euskaltzainak. Eusko Ikaskuntzak, 1919ko udazkeneko lehen egunean, Donostiako Aldundira euskaltzainez gain euskaraz argitaratzen ziren aldizkari nagusien zuzendariak ere deitu zituen. Beraz, *Irugarrengo* aldizkariaren zuzendaria zen Aita Damaso ere han izan zen. Batzar garrantzitsua izan zen hura, zeren Euskaltzaindiaren Estatutuak bertan onartu ziren eta bertan aho batez hautatuak izan ziren gainerako euskaltzainak: Txomin Agirre, Pierre Broussain, Adema, Inzagaray, José Agerre, J. B. Eguzkiza, R. Olabide eta P. Lhande. Nafarrak bi ziren: Campion eta Agerre.



— 60 —

NAPARO'KO ADITZ-LAGUNTZALEA

ZUKETAZKO ESAKERAN

(BERRO LIBELTZAREN D'AN, BILBODOKO AUZO-ETXEAN EUSKALTZAINDIAN BARTZEKO EGUNEAN ITZATI DAMASO AN BURUÑUDINAK EMAGÜRITAKO LANA

II

Ziordia ta Olazti (Olazaguña) ko euskera

Bonaparte'k gipuzkoerazko euskalkia izena eman zion Buruada, Etxarri-Aranatz eta Ergun (Ergoyena) guztan irizgien den euskalkiari. Baño lendi zait ez diezkela euskalki bat bezala artu, ikusiko degun añeko berdineza ta berexiasuna duten euskerak.

Argatik Napañoaren baztar batetik asteko, lena Ziordi ta Olazti'koaz ta orkoaren aldaketa besterik ez diran Altsasu'ko, Urdiar'go, Irurmendi ta Bakaiku' koaz ikzgingo dut. Euskalki au lenengo begiraldian eta geroxego ere Bizkaiko euskalkirako artu nuan. Baño garbi ezaguzen dut ez dela.

Eri oietako:

		Olazti'ko
Dut	Daubet — Dioet	Derot
Dezu	Daubezu	Derazu
Dau	Daube	Daro
Du ta dau	Dauben	Derogu
Dozui	Daubezui	Derozui
Dubai ta dai	Daubei	Derni
Urdiar'go	*Irurmendi' ko*	*Irurmendi' ko*
Jok — ziok	Oerozü	Zendut
Jon — zion	Oeru	*Bakaikoa' ko*
	Oerozui	Gendut
	Oerabei	

Euskera aldizkarian argitaratu zen sarrera-hitzaldia

Alabaina, Jose Agerre iruindarrak utzi egin behar izan zuen Euskaltzaindia, lanbideagatik Sevillara bizitzera joan behar izan zuelako. Horra, beraz, Aita Damaso Intzakoa, Campion, Urkijo eta Azkuek aurkezturik, Agerrek utzitako aulkia betetzeko, 1920ko ekainaren 24an, euskaltzain hautatua. Iruñean uztailaren 23 eta 24an egon zen A. Damaso lehenbizikoz Euskaltzaindiaren bileran. Euskaltzaintzaren ohoreaz baino karguaren erantzukizunaz eta hark zekarzkion egitekoez arduratuagoa Nagusiarengana jo zuen apaltasunez, eta honen ahotik honako hau jaso zuen: «dezakezuna egizu eta ez zaizu gehiago eskatuko». Adierazgarriak dira bilera hartan hartu ziren A. Intzari zuzenduriko xedapenak: «A. Intzak berak edo bere lagunen batek artu deyala, Iruñako Erki-gutuntegian dagozan Bonaparte-ren eskuidazkien barri Euskaltzaindiari emoteko ardurea»; «A. Intza euskaltzaiñ autatuak, Urabayen jauna lagun dabela, ikusi bei Naparroan euskera zabaldu eta gogortzeko egokienik egin daikeana zer dan.

Naparroako Aldundiak Euskaltzaindia'ri emongo dautsan dirua onentantze eraltzea erabagi eben gogo bardiñez euskaltzaiñ guztiak»; «A. Intzaren eskabidez Iruñako gotzainagandik lortu beite len aitaturiko kristiñau-ikasbidea, Giputzerazkoa, Naparroa'ko euskaldunen artean sartzea».

1921eko urtarrilaren 27an Elizondoko Udaletxean eskaini zuen bere sarrera-hitzaldia. «Sei illabete joan dira, gaur nere gain artzera noan (sic) eskeñi zitzaidan ezkeroz: ta ala ere nere gorputzetik oraindik ez da atera, berri onekin nere biotzean sartu zan bildurra» esanda hasi zen. Zer-nolako lana zen eta nondik ekin zitekeen burutapenetan zebilela, ez omen zuen argirik begiztatzen: «Begiraldi bat eman nion, nere baitten, gure Naparro maiteari, bere ordekoa izan bear nuala burutik ezin kenduz. Eta oraindik iñork eskurik sartu gabe dagoan basa edo oyan itxi-itxia bezala iruditu zitzaidan». Eta jarraitu zuen: «Hainbeste lan egin bearko da erri ontan euskera batu, ondu, berritu ta goratzekoan!». Horrela bada, lekuaren kokapena garbi zuen, eta lan-alorrari dagokionez, aditza hartu zuen hitzaldirako ikerketa-gai: «Naparro'ko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran». Aditza zuen berak euskararen atalik garrantzitsuena bezala: «Txorotako artu naute gure erritar batzuek. Baño gure erritar auek ez dakite euskal izkuntza arrigarria ba-da… Aditza edo berboa dala bere galdorra ta bere goragarria, aditzean agertzen bai ditu (euskerak) bere aunditasuna ta bere baztar gabeko aberastasunak».

Materialak jasotzeko erabili zuen metodologia ezin egokiagoa izan zen. Batetik, iturri idatziak miatu zituen, Iruñean XVII. mendearen hasieran sarituak izan ziren «Aldareko gorputz sanduari» olerkietatik hasita. Mende bereko Beriainen doktrina, Alesonen olerkia eta Axular. XVIII. mendeko Miquelestorenaren liburua, Sebastian Mendibururen lanak, mende horretako Lekarozko komentuan zeuzkaten Carlos de Fuenterravia kaputxinoaren sermoien eskuizkribuak eta Lizarragaren zenbait lan. XIX. mendean, Bonaparteren lan batzuk, honen laguntzailea izan zen Bruno Echeniqueren testu bat, Huiciren Gramatika eta beste herrietako hizkeretan lortu zituen zenbait eskuizkribu. Corpus aberats hori ahozko hizkeraz osatu zuen: «Gure izkuntza zeñen ederra, aberatsa ta maitagarria dan ez dakien asko, arritzen ziran lengo sei ilabetetan hainbeste jira-bira euskeragatik egiten ni ikusi-ta. Araba ondoko Ziordi'tik asi-ta Erronkari'rañoko euskera darabilten baztar geientsuetan ibili naiz, ango euskeran zerbait aldaketa izan zitekela sumatu ezkeroz», aitortzen zuen. Sarrera-hitzaldiari erantzuna Aita Olabide jesuita arabarrak eman zion: «Lan orren antzeko batzuek ageriko ba'lira —Intzaren lanari buruz zioen—, *lingua navarrorum* VI Santxo Yakitunaren aitorrez dan euskera gasoa, gaurkoan baño ezagunago laster izango geneuke».

Nafarroako hizkeren aditza bilduz lan bikaina egin zuen, baina ez zen inola ere lan bakarra izan. Aipatzekoak dira, esaterako, *Euskera* aldizkarian argitaratzeko urteetan bildu zituen «Esaera-zarrak». Herriaren jakinduria galdu aitzin bildu nahi zuen, baina xedea ez zen bilketa hutsa: «Esanera oietantxe dago lo, gure aurrekoen jakinduri ez txikia. Zenbat aberastu gentzake gure izkuntza erritarren agotan egunero dabiltzan guziak guregandu al-ba gentzazke!».

Gerra hasi zenean gauzak erabat aldatu ziren. Aita Damasok erbestera alde egin behar izan zuen dena bertan behera utziz. Arantzazun, 1956ko irailaren 14-16an ospatu zen Euskaltzaleen Biltzarrera etorri zen eta irekierako ekintzan beste zenbaitekin batera mahaiburuan jarri zuten. Euskal Herrian ibili zen bitarte horretan batek baino gehiagok eskatu omen zion hemen geldi zedin euskaraz lan egiteko, ez, ordea, nagusiek, eta berriro hara itzuli behar izan zuen. Euskal Herrira behin betiko 1968an itzuli zen, eta urte horretan, hain zuzen, Euskaltzaindiak 50 urteak bete zituen, eta hori ospatzeko osoko bilkura Iruñean egin zen. A. Damasok aurreneko urteen eta euskaltzainen oroitzapen aski hunkigarria egin zuen, eta Euskaltzaindiak, bere aldetik, A. Damasori omen sentitua eskaini zion euskaltzain zaharrena eta Erakundearen lehen urte haietako lekuko zelako. Artean beste hamazazpi urtez biziko zen, 66 urtez euskaltzain izan zelarik.

Argitalpenak

Aita Damaso ez da euskal literaturaren historiara pasatu, apenas aipatzen du inork, baina bere lana ikusiz, toki bat beharko luke. Ez da erraza euskaraz idatzi eta argitaratu zuen dena ongi jakiten, izena ezarri gabe maiz agertzen baitziren haren lanak. Gai erlijiosoekin hasiz, hor daude *Irugarrengo Prantziskotarra* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan hainbat artikulu sinatu eta sinatu gabe, eta bereak izan daitezke baita ere *Frantzisko Santuaren Irugarren Ordenako Ikasbidea*, 1920; *Gurutze-bide edo Kalbarioak,* 1924; *Aita Kaputxinoen Misiotako Eresiak*, 1926, denak Iruñean argitaratuak. Bereak dira 1924ko *Kristau ikasbidearen I'ko eta II-garren zatiaren azalpena* eta, hiru urte beranduago, *Kristau ikasbidea Mujica ta Urrestarazu'tar Mateo Iruñako* Erakundearen *Gotzai Jaunguziz agurgarriak agindurik egiña*; 1923ko Doneztebeko Euskal Jai ospetsuan eman zuen *Doneztebe'ko elizan egindako itzaldia;* 1930ean argitaratutako *Errientzako liturgia, Abendua*; garai hartakoak dira ere, Joaquin Lizarragaren *Jabier'tar Frantzisko Santuaren bederatziurrena* lanaren edizioa, 1922. Itzulpenak ere egin zituen: «Humanae vitae» entziklika *Giza Biziaz,* 1968an argitaratua, edo *Adoain-go Esteban Aita* 1970ean.

Gazte denboran, 1913. urtetik aurrera, ia urtero, *Euskal-Esnalean* ipuin bat baino gehiago ere argitaratu zituen: «Martin zintzoa», «A zer azarie!», «Ordikeriaren kalteak», «Izkiri-



A. Damasoren *Kristau Ikasbidea*

Jautarkolen *Biozkadak* liburuaren lehenengo edizioa
A. Damasok paratu zuen

miriak», «Lapurrak, lapurrak» eta beste. Hala ere, A. Damasoren ekarririk nagusiena hizkuntzalaritza mailan koka daiteke, herri hizkera ukitu eta eskukatu gabe jaso zuelako; bere lanak, hizketaren berezkotasuna errespetatzen dutelako, metodologiaren eta materialen transmisioaren aldetik eredugarriak gertatu ziren. Bestalde, goi-nafarrera euskalkiaren bilketaz gain, azterketak ere egin zituen. Hor daude, aipaturiko Nafarroako aditzarena, Burunda eta Larraungo hizkerei buruz egin zituen lanak eta hain arrakastatsua izan zen *Nafarroako euskal-esaera zarrak*. Eta ataltxo honek ezinbestean laburra izan behar duen arren, ez nituzke hainbeste estimatzen eta miresten zuen Luis Jauregi *Jautarkol*en *Biozkadak* liburuari egin zizkion bi sarrerak aipatu gabe utziko: aurreneko edizioari lehena, 1929an; eta 1975ean, bigarren edizioa egin zenean, bestea. Ez zuen eskuratu, azken sarrera honetan agintzen zuen bezala, Jautarkolen olerki guzien bilduma argitaratzerik, baina 89 urteko gizona horrelako asmotan hain sartua egoteak zerbait aditzera ematen du A. Damasoren espirituaz. Gaztexeagoa izan balitz, ala ikusmena hobekixeago izan balu!



Bildu zituen euskal-esaerek arrakasta handia izan zuten



A. Damasoren eskuizkribu baten zatia

Euskara Nafarroan bultzatzen

Aita Damasok 50 urte zituen erbestera joan beharra izan zuenean: hogeita hamar urtetik gora egingo zituen kanpoan! Baina hain zen lanera lotua, ezen aurreko urteetan eginarekin ongi betea utzi zuela bere euskararen aldeko orria. Aipatu ditugu idatziz eginikoetarik bi lan nagusiak, eta, noski, herrian milaka harpidedun izan zituzten bi aldizkariak. Baina badira, hizkuntzari eta euskarari laguntzean, lan apalagoak, distirarik gabeak esan nahi baita, baina ez haatik beharrizan txikiagoko eta eragin murritzagokoak. Eta hauetan egin zuen A. Damasok lanik eder-rena. Ez dezagun ahantzi goian jaso dugun Euskaltzaindiak ezarri zion lehentasunezko egiteko hura: «ikusi bei Naparroan euskera zabaldu eta gogortzeko egokienik egin daikeana zer dan». Euskaltzaindiaren aginduz, beraz, eta haren itzalpean hasi zen euskara indartu, sustatu eta goratu nahian bere Nafarroa maitean.

Hogeiko hamarkadan, Iruñean euskararekiko giro aski bizi eta aldekoa zegoen eta hori lagungarri gertatu zitzaion bere asmoak aurrera eramateko. Baina berak inork baino gertuagotik ezagutzen zuen euskararen egoera

larria hainbat bailaratan eta, 1922ko ekainean Euskaltzaindiko batzarrean, nahigabez beterik, galera hori saihesteko zerbait lehenbailehen egin beharra zela agertu zuen.

Arlo desberdinetan aritu zen, beti ere bide egokiena hautatuz beharren arabera. Urte haietako Euskaltzaindiko bileren aktak begiratzea aski da ohartzeko A. Intzak batzar guzietara eramaten zuela egitasmo berriren bat Iruñean eta Nafarroan euskara lagundu eta indartzeko, eta ia beti lortzen zuen euskaltzainen babesik beroena. Bazekien nondik nora eraman behar zen lana. Begira zer zien Euskaltzaindiko sarrerako hitzaldian Elizondon bildu zen jende eta herri-arduradunei:

> Euskera maitte dezutelako, gaur emen bildu zeraten guziori esan bear dizuet berriz, gure izkuntza maitea berritzeko, aberasteko, goratu ta zabaltzeko lanetan Euskaltzaindiak egiñalak egin da ere, ezer gutxi aurreratuko giñukela edo batere ez, zuen laguntza ez ba-ziñiguke emango. Zuek batez ere erritako buru zeraten Auzo-gizonak eta Apez jaunak izan bear dezute Euskaltzaindiaren besoak; zuen eskuetan dago gure euskera ederraren bizia.

Bide horretatik abiatuz, hagitz esanguratsua da Iruñeko apaizgai euskaldunak udarako opor-egunetan euskararen alde eta Euskaltzaindiak asmotan zuen hiztegi handirako lan egiteko prest zeudela. A. Damasok zenbait gai eskaini zizkien lagungarri: Nafarroako toki-izenak lerroka jarri eta parean herriko lore eta landareen eta haur-jolasen izenak ipini. Euskaltzaindiak onetsi zion, noski, eta Azkuek berak galdekizun bat agindu zien «lan goragarri ortan ekin dezaten». Bistan da apaizgai haien barruan euskararekiko atxikimendu berezia eragin zuela, udako oporraldian euskararen alde kanpo-lanean jarduteko adinakoa.

Iruñeko Institutuan euskara irakasten zen, eta gauza bera nahi izan zen apaizgaientzat ere. Horretarako, A. Damasok Baztango apaiz bat hautatu zuen eta hari ordaintzeko Euskaltzaindira jaso zuen diru-laguntza eskaria, eta Euskaltzaindiak, Nafarroako Aldundiak agindutako diru laguntzatik, gogoz emango zuela agindu zion. Dena den, ez dago Elizaren inguruan bultzatu zituen ekintza guziak aipatu ere egiterik eta, bestalde, ongi ohartzen zen zein eragin onuragarria zuten apaizek.


Archivos de la Sociedad
EUSKERAREN ADISKIDEAK
Entregados:
por D. José Aguerre en 1936
al P. Pantaleón Goldaracena (q.e.p.d.)
y confiados al P. Fran. de Borja
a la muerte del P. Pantaleón

Euskeraren Adiskideak elkartearen sortzailea izan zen

Euskeraren Adiskideak

Egin zituen lanen artean bada bat bereziki ekarri behar dena hona: *Euskeraren Adiskideak* elkartearen sorrera Iruñean. Aita Damasok horri buruzko lehen aipamena 1923ko urriaren amaieran egiten du Euskaltzaindiko batzarrean: euskaraz gero eta gehiago idazten zela eta irakurleak ere zaindu egin behar zirela eta «euskal-irakurle» elkarte bat egitea egoki litzatekeela. Ongi ikusi zuen hori Euskaltzaindiak: «oni dagokion arlo auxe: orain sortu dan "Euskeraren adiskideak-i" egotzi behar zaiola deritzaio». Jakina den bezala, urte hartan Eusko Ikaskuntzak Gernikako batzarrean *Euskeraren Adiskideak* elkartea Bilbon sortzeko erabakia hartu zuen. Nafarroan, ofizialki, bi urte beranduago sortu zen, 1925eko urriaren 26an, Euskaltzaindiko aktan bildu zen bezala: «Aita Intza'k, Yaur-sailleko Buruzagi danez, iragarri dizkigu Naparroa aldeko euskal-lanak. Antxe iratsi da *Euskeraren adiskideak* deitzen dan Bazkuna eta egiazko adore ederrez asi dala, ta bertako bazkideak oso sutsu daudela adierazi digu». Helburuak honako hauek izan ziren A. Damaso beraren hitzetan: «euskeraren alde lana lasa egiteko, euskera galtzen ari zen alderdietan euskeraz irakurtzen eta idazten aurrei erakusteko, ta aur ikasle euskera zekienei, Nafarroko Aldundiaren bidez, bere Aurrezki-kutxan diru zenbait jartzeko». Ilusioz beterik aurkitzen zen Nafarroako gizarte euskaldun eta euskaltzale hark erantzun bikaina eman zion elkarte berriari eta lehen hilabeterako bazituen berrehun bazkidetik goiti. Intzak berak Larrekoren oroimenez ia berrogei urte geroago eman zuen hitzaldian hainbat bazkide ospetsu aipatu zituen: «Tenore artan Naparroak zituen gizon euskaldunik aipatuenak elkartasun ortan genitun». Eta, izan ere, ez zen gutxiagorako: agintarien aldetik, Iruñeko Udaleko alkatearen ordezkari zen L. Nagore; Elizbarrutitik, Mateo Mujika gotzaina bera, hainbat eta hainbat apaiz Orreagako kalonjetatik hasi eta Sakana eta Ergoienarainokoak. Orduko beste kaputxino aipatuak ere bazkide ziren: Aita Donostia, Hilario Olazaran, Erriezuko Jorje, Iraizozeko Polikarpo. A. Remijio Mujika jesulaguna. Irakaskuntza, kultura eta arte mailan norbait zirenak: Iruñeko abesbatzako burua, Enrike Zubiri *Manezaundi*, Jose Agerre, Paz de Ziganda, Justo Mari Mocoroa, Fermin Irigarai. *La Voz de Navarra* egunkariko zenbait kazetari eta haren zuzendariak izan ziren Jesus Etayo eta Jesus Aranzadi. Eta hemen aipatzerik ez dagoen beste izen aunitz, gizarte-maila eta mota desberdinetakoak, hala nola, Pablo Artxanko, Jose Maria Huarte, Ignacio Balez-tena, Manuel Aranzadi eta abar. Bi urteren buruan Elkarteak Nafarroako herri euskaldunetan hainbat ordezkaritza sortu zituen.

Harrigarria da zein lan handia eta ugaria egin daitekeen hain urte gutxitan, beti eta dena euskararen eta euskal kulturaren inguruan eta biak herriari begiratuz. Azken hauxe da Aita

Damasoren ekintza guzien ardatz eta ezaugarri nagusia: egiten zuen guztiak herria zuela helburu. Sinesgaitza ere bada zein zorrotz hartu zuen Euskaltzaindiak ezarri zion Nafarroarekiko ordezkaritza bezalako hura. Euskal eskolak sustatu, dantzari taldeak eta txistulari bandak sortu, euskal literatura eta musika bultzatu, lehiaketa literarioak antolatu.

Garai hartan oihartzun handia izan zuten *Euskal Jaiak*, *Euskal Egunak* ere deituak. Nafarroan antolatutako lehenengoak, 1923an, Etxarri-Aranatzen eta Donezteben izan ziren. Hortik aurrera, herri desberdinetan urtero ospatu ziren. Aita Damasok berak ibili behar izan zuen buru-belarri, bera baitzen arduradun eta zuzendari Euskaltzaindiak izendatua. Esanguratsuak dira Euskaltzaindiko bilera bateko aktan biltzen diren hitz hauek: «Berak ez du lan aben ardurarik artu nai, bakarrik orainartean bezala ibiltzekotan». Jai horietan, hitzaldiak, bertsolarien saioak, pilota partidak eta euskal folklorea eskaintzen ziren, euskal girorik atseginenean, herrietan euskara, euskal abestiak eta dantzak eta dantzari taldeak indartzea bilatzen zutelarik. Eta sekula ez zen falta zazpitik hamalau urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat sarien banaketa: herri euskaldunetan, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasteagatik; euskara galdua edo galtzear zutenetan, euskaraz

1936an Hondarribian. A.Damaso eserita ezkerretik laugarrena

ikasteagatik. Sarietarako Aldundiak berak jartzen zuen dirua, Aurrezki Kutxan kartila irekiz sartzen zitzaielarik sariari zegokion kopurua. Eta atal hau amaitzeko jaso ditzagun Aita Damasoren hitzok: «apitxi-amitxi ta aita--amari adierazi bear zitzaiela beren illoba eta seme alabakin beti euskeraz egiteko, ta alegiñean egiñazteko, beren etxetan beti euskera xardukiz edo elekatuz; au bait da gure aitzineko guzien izkuntza Nafarroan». Dohakaberik handienez, 1936. urtean dena erabat suntsitua gelditu zen.

Eta gerra hasi zen

1935eko uztailean zenbait kaputxinoren egoitza aldaketak gertatu ziren Hondarribiko ikastetxea Lizarrara eramatearen ondorioz. Bat Aita Damasorena izan zen, Hondarribira, hango bikaritza libre gelditu zelako. Gerra hasi zenean, beraz, Hondarribiko komentuko bikarioa zen. Gerra hasiz gero, 1936ko irailera arte baino ez zuen han igaro, baina esperientzia bortitza izan zen eta hain eskertua baitzen jaso zuten laguntzagatik, ezen, dena pasatu ondoren, hamalau orrialdeko testu irakurgarria idatzi zuen bi hilabete haietan bizi izan zituzten gertakizun eta atsekabe guziak zehaztasunez eta apaltasun handiz kontatuz. 1977an Kaputxinoen Probintziako Buletin Ofizialean argitaratu zen.

1948an Txilen. A. Damaso eserita eskuinetik bigarrena

Hogeita bederatzi erlijiosok osatzen zuten Hondarribiko komunitatea. Abuztuaren 19an, denak etxean zeudelarik, Oieregiko Aita Buenaventura izan ezik, milizianoak joan zitzaizkien goizeko hiruretan, fusil eta metrailetak eskutan. Sarrera guziak hertsiz, fraideak autobusean sartu eta Guadalupeko gotorlekuan espetxeratu zituzten. Aita Damaso zen taldearen arduradun, nagusia milizianoekin gelditu zelako komentua zehazki miatzen zuten bitartean. Hurrengo egunean etxera itzuli zituzten, ez baitzuten deus aurkitu eta ertzaintzak gogor hartu baitzituen milizianoak fraideen askapena exijituz. Baina mehatxuak, ebasketak eta beldurrak ez ziren amaitu euskal gudariek komentua kuarteltzat hartu zuten arte, elkarren artean harreman eramangarria ezarriz. Edonola ere, egoerak larria izaten jarraitu zuen, hainbeste ekintza izugarri gertatu baitzen herrian bertan eta inguruetan. Irailaren 7an irabazleak sartu ziren, eta orduan ere euskal eta abertzale itzala zutelako gauzak ez ziren asko ondu. Aita Damaso Altsasura bidali zuten eta han ere ez zitzaion atsekaberik faltatu. Arrasateko parrokoa erail zutelarik Damasori ere beldurra sartu zitzaion, harekin gutun harremanik izan baitzuen. Horrek eta beste arrazoiek eraginda, azaroan Txilera bidali zuten.

Txilen 32 urte

Hogeita hamabi urte egin zituen Txilen. Lehenengo lau urteak Santiagon eman zituen, koadjutore bezala, eta gainerako guziak Constitución hirian: zortzi, nobizioen maisu; komunitateko nagusi ere izan zen, eta inguruetako parrokietan koadjutore eta ospitalean kapilau. Lanik ez zitzaion falta: parrokietan agitu ohi diren behar ugariak, ospitalekoak, misioak eta gogo-jardunak eman, zenbait komentu atenditu, etxeko egitekoak ere zintzo bete… Aita Damasok, han ere bere burua osoro eskainiz eta ahalmenak eta ahaleginak biderkatuz, noski, lan oparoa egin zuen egonaldi luze hartan. Azkenik,1968an laurogeita bi urterekin, itzuli zen Euskal Herrira.

Laurogeita hamar urterekin eritegira bildu zen

Azken urteak

Txiletik etortzean Argentinan zituen senitartekoak ikusteko aukera izan zuen, eta Iruñean berriro Errotazaharreko komentura bidali zuten. Urteak dira laurogeita bi urte, baina A. Intza ez zen artean ahul, ez eta geldi egoteko ere. Ez gaztaroko ekinez, baina borondate beraz jardun zuen eliz lanetan, eta euskal gaietan ere aritu zen. Euskara Batuaren lehen urratsak ematen hasiak zirenean itzuli zen Euskal Herrira. Bazuen horren berri, eta garai batean, Euskaltzaineko hitzaldian agertu zuen bezala, berak ere garbi ikusten zuen euskararen batasunaren beharra, eta pentsatu behar da horretan jarraitzen zuela gerora ere, baina 1968an gori-gori aurkitzen zen «h» letraren arazoa, eta horrek asko nahastu zituen bazterrak, batez ere adinekoen artean, eta agian areago hain luzaro herritik kanpo egon zenarengan. Bestalde, zuen adinean ez zuen bere burua gai ikusten erabilera berria ikasi eta hartara ohitzeko. Edonola ere, ez zen bereziki nabarmendu batuaren aurka, arau berrietara egokitzerik ez bazuen izan ere.

Eritegira bildu behar izan zuen laurogeita hamar urterekin, gaitasun fisikoa hagitz urritua zuelako, batez ere ikusmena, eta baita entzumena ere, buruak argi iraungo bazion ere azken hatseraino, 1986ko irailaren 21ean, 100 urte betetzeko 28 egunera. Ez omen zen eritasunez joan, zaharraren hutsez baizik, eta hileta elizkizunean 38 apaizek, senitarteko, lagun eta euskaltzale ugarik hartu zuen parte, eta, amaieran, A. Villasante euskaltzainburuak eta Satrustegi jaun euskaltzain nafarrak, aldare aitzinetik, Aita Damaso Intzakoaren goresmena egin zuten bakoitzak bere aldetik.

ETBk 1984ko urrian eginiko elkarrizketan



Euskaltzain, jaunak; ikusi duguna ikusi ondoan guziori gogoratuko zitzaizuten neri gogoratu zaiena noski; nere lanetik berez jalkintzen den ziiua da-ta. Au da, onenbeste aldaketa ta onenbeste berextasunekin gure euskerak ez dezake deus irabazi. Irabazi bearean bereixtasun au euskerarentzat gauzarik kaltegarienetakoa da.

Gure berextasun olekatik, gure euskera maitagarla paragari jartzen dugu gure artera datozen erdaldunen begietan, lotsagari elkari ezin adiiuz ikusten diran euskaldunentzat eta azkenean gorotagari ta zer esanbide naiko ematen diena, guri ta gure gauzuei aurretik gutxi nai diguienentzat. Argatik bearezkoa da euskera batutzea, euskera bizitzekotan.

Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldian (1921) euskara batzearen alde agertu zen

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Kaputxino-Artxiboari. Errotazahar, Iruñea
- Rosa Miren Pagolari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2005eko abendua
Ale-kopurua:	3.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Rosa Miren Pagola
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2375-8 (Lan osoarena) 84-457-2378-2
L.G.:	BI - 3288-05

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco